

**LEHENDAKARITZA**

Europar Batasuneko eta Kanpo
Harremanetako Idazkaritza Nagusia
Kanpoan den Euskal
Komunitatearentzako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de Unión Europea
y Acción Exterior
Dirección para la Comunidad Vasca en el
Exterior

EKINTZA INSTITUZIONALERAKO LAU URTEKO PLANA 2024-2027**“ERALDAROA”****SARRERA**

2024ko martxoaren 5ean, Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordearen ohiko bilkura izan zen; 8/1994 Legearen (8/1994 Legea, maiatzaren 27koa, Euskal Autonomi Elkarteaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarakoa) 12. artikuluan ezarritakoari jarraikiz sortu zen batzordea.

Aholku Batzordearen bileran, 2024-2027 aldiko Ekintza Institutuzionalerako Lau urteko Planaren dokumentu hau onartu zen, eta plan horretan jasotako gai bakoitzean eskumena duten erakundeetara helarazi zen dokumentua, Aholku Batzordean dituzten ordezkarien bitartez.

2023ko abenduaren 18an, 19an, 20an eta 21ean Euskal Gizataldeen VIII. Mundu Batzarra egin zen Donostian, 8/1994 Legearen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eusko Jaurlaritzaren Euskal Etxeen erregistro ofizialean erregistratuta dauden eta euskaldunen presentzia antolatuta duten 18 herrialdeetako ordezkariak parte hartu zuten Batzarrean.

ERALDAROA izan zen Batzarrerako aukeratutako leloa, euskal diaspora, oro har, ardatz duten politketan inflexio-puntu bat markatu eta egungo nahiz etorkizuneko beharrei erantzuteko asmoz.

Lau urteko Plan hau egiteko, Euskal Gizataldeen VIII. Batzarretik ateratako ondorioen dokumentua hartu da kontuan; izan ere, dokumentu horretan, Eusko Jaurlaritzak diasporarekiko harreman politika esparruan abian dituen programa eta ekimenekin jarraitzearen alde egiten dute euskal etxeetako eta federazioetako ordezkariak, eta baita politika publikoak gauzatzeko kanpoko euskal elkarten mugimenduak duen presentziari garrantzi handiagoa ematearen alde ere.

Euskal komunitate global egituratua izatea funtsezkoa da Euskadiren eta Euskadi-Basque Country markaren nazioarteko posizionamendu egokia lortzeko.

Planean jardunerako lau ardatz biltzen dira, Nazioartekotzeko Esparru Estrategia/Euskadi-Basque Country Estrategiaren eta 2025eko Kanpo Harremanetarako Planaren bideari jarraikiz:

1. Kanpoko euskal presentzia sendotzea.
2. Euskal gizartea diasporizatzea.
3. Euskal komunitate globala konektatzea.
4. Talentua eta itzulera.

Aurreko ardatz horien bitartez honako helburu hauek bete nahi dira:

1. Kanpoko euskal komunitatearen dinamismoari laguntzea, kokatuta dagoen tokian elkarre-jarduerak eta Euskadi Basque Country marka proiektatzen laguntzen dutenak bultzatuz.
2. Diasporari balioa ematea, giza kapital, kapital sozial, kultur kapital eta kapital ekonomiko den aldetik (zeharkakotasuna).
3. Euskadik bere diasporarekin duen harremana indartzea (Eraldaroa).
4. Euskal gizartea bere diasporaren potentzialaz kontzientziatzea, diaspora hori ezagututa eta balioetsita (Diasporizatu).
5. Euskadira itzuli nahi duten diasporako kideak baldintza onenetan hartzea.
6. Diasporei dagozkien euskal politikak planteamendu globalekin lerrokatzea, Euskadi abangoardian kokatzearen.

Berdintasuna gaur egungo euskal kulturaren parte denez, euskal diasporarekin berdintasuna lantzea kanpo harremanen zereginetako bat da, osagai aktibo bat, hainbat eratako egitasmoak landuta eta bultzatuta berdintasunaren arloan.

Planean jasotako postulatuaren ebaluazioa eta jarraipena egitea Aholku Batzordeari dagokio, eta urtean behin, gutxienez, egingo da, ohiko bileretan.

Era berean, plana indarrean dagoen bitartean, bilerak kontinenteka egitea aurreikusi da, eta bilera horietan plana zenbateraino bete den baloratuko da.

Aholku Batzorde horren helburua da 2024-2027 aldirako Ekintza Instituzionalerako Lau Urteko Planaren edukia euskal diasporan ez ezik, euskal erakundearen eremuan ere zabaltzea.

Azkenik, diasporaren inguruko gaietan Nafarroako eta Iparraldeko administrazioekin elkarlanean aritzea sustatuko da.

EKINTZA INSTITUZIONALERAKO LAU URTEKO PLANA 2024-2027

“ERALDAROA”

1. Kanpoko euskal presentzia sendotzea

1.1. Euskal Etxeen eta Federazioen sarearen finantzaketa.

- Ordainketen zenbatekoak egokitzea eta deialdien egutegiak zehaztea, Euskal Etxeen beharretara egokitzeko.
- Izapideak (irizpideak) sinplifikatzea, programan parte hartzea errazagoa izan dadin.
- Euskal Etxeetako zuzendaritzetako kideei zuzendutako dirulaguntzen inguruko formakuntza ekimenak burutzea.

1.2. Egoera ahulenean dauden pertsonen zuzendutako laguntza.

- Premia larrian daudenei laguntzeko deialdia beste era batera egitea, izapideak lehiaketa bidez –kasuak alderatuta– egin beharrez, segidako lehiaketaren bitartez eginda.

1.3. Gazteria.

- Gaztemundu:
 - Programarekin jarraitzea, datak eta edukiak egokituta jende gehiagok parte hartu ahal izan dezan.
 - Ahal den heinean, plaza gehiago eskaintzea.
 - Planaren indarraldian landu beharreko gaiak: dantza, euskal musika tradizionala, gastronomia eta komunitateen kudeaketa.
- Euskadin lanbide heziketako eta graduondoko ikasketak egiteko deialdiak berraktibatzea, Euskal Etxeetako gazteei zuzendutakoak.

1.4. Genero-ikuspegia.

- Berdintasunaren arloan prestakuntza emateko eta sentsibilizatzeko proiektua sustatzea Euskal Etxeei zuzenduta: Berdintasunerako Eskola – Euskal Etxeak.
- Emakumeek eta neska gazteek Euskal Etxeetako koordinazioko eta zuzendaritzako organoetan benetan parte har dezaten laguntzea.
- Euskal diasporako emakumeen ekarpenak ezagutaraztea, haien errealitatea zein den eta ekonomiari, kulturari eta euskal gizarte globalaren garapenari zer nolako ekarpena egiten dieten jakiteko.

1.5. Kultura eta euskara.

- Bira kulturalen deialdia berraktibatzea, aurrekontuan dagoen diru kopuruaren eta eskaeren arabera.
- Munduan zehar euskara ikasteko aukerak bultzatzen jarraitzea.

1.6. Turismo arloko ekintzak.

- Euskal diasporari zuzendutako turismo kanpainak.

2. Euskal gizartea diasporizatzea.

2.1 Dibulgazio-ekintzak:

- Euskal Diasporaren Eguna urtero ospatzea.
- Euskal emigrazioari buruzko erakusketak egitea Euskadin.
- Euskal Diasporaren Artxiborako materiala biltzeko kanpainak egitea.

2.2 Hezkuntza-arloko ekintzak:

- Eskola-curriculumak.
- Euskal diasporari buruzko masterra.
- Euskal diasporaren inguruko ikerketak.

2.3 Migrazioen Interpretazio Zentroa sortzea

2.4 Komunikabideak:

- Euskal diasporari buruzko politikarekin lotutako komunikazioa egokitzea.

3. Euskal komunitate globala konektatzea

- 3.1 Maiatzaren 27ko 8/1994 Legea eguneratzea eta, horretarako, euskal diasporari buruzko lege berri bat onartzea, diasporarekiko harremanak arautzearren.

Lege-proiektu baten bitartez izapidetzea, legebiltzarreko taldeen artean ahalik eta adostasunik handiena lortzen saiatuta, 1994an egin zen bezala.

Aurreikusitako data: 2025

- 3.2 Lege berria garatzeko arau berriak sortzea, lege berri horretan aurreikusitako alderdien garapenerako.

Aurreikusitako data: 2027

- 3.3 "Zenbat gara" mapaketa eta/edo azterketa egitea.

- i. Kanpoan bizi diren euskaldunak.
- ii. Diaspora historikoa.
- iii. Kide-tasun-diaspora: euskalduntasunaren adiskideak.

Aurreikusitako data: 2024-2026

- 3.4 Adituen Konferentzia antolatzea akademikoekin, politikariek eta euskal diasporaren ordezkariekin.

Aurreikusitako data: 2025

- 3.5 Diasporari buruzko nazioarteko foroetan parte hartzea.

Urtero

- 3.6 Topagune birtual bat sortzea euskal diasporarentzat. HANHEMEN.

Ezarpen-data: 2024-2025

4. Talentua eta itzulera

- 4.1 Itzulera euskal politika integrala bultzatzea.

4.2. Tituluak baliozkotzea.

Plan honetan aurreikusitako guztia gauzatzeko, baliabide ekonomiko eta giza baliabide askoz ere gehiago beharko dira.